



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruñean, 2001eko urriaren 5ean

98 ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak, eta Parlamentuko informazioa:

—Nafarroako Gobernuak Arrese Fundazioari 1996tik 2000ra bitarte emaniko dirulaguntzei eta beste laguntza batzuei buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganbarak egina ([2. or.](#)).

G Saila:

TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Gobernuak Arrese Fundazioari 1996tik 2000ra bitarte emaniko dirulaguntzei eta beste laguntza batzuei buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganbarak egina

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko abuztuaren 27an eginiko bilkuran, erabaki zuen Nafarroako Gobernuak Arrese Fundazioari 1996tik 2000ra bitarte emaniko dirulaguntzei eta beste laguntza batzuei buruz Kontuen Ganbarak egindako fiskalizazio txostena, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2001eko abuztuaren 27an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Nafarroako Gobernuak Arrese Fundazioari 1996tik 2000ra bitarte emaniko dirulaguntzei eta beste laguntza batzuei buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganbarak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (2. or.)
- II. Arrese Fundazioa eta Nafarroako Gobernua (3. or.)
 - II.1. Arrese Fundazioa (3. or.)
 - II.2. Fundazioei buruzko arauak (4. or.)
 - II.3. Arrese Fundazioaren eta Nafarroako Gobernuaren arteko harremanen kronologia, tributu araubide bereziari eta Fundazioen Erregistroari dagokienez. (5. or.)
 - II.4. Nafarroako Gobernuak Arrese Fundazioari emaniko dirulaguntzak eta beste laguntza batzuk. (6. or.)
- III. Helburua, norainokoa eta mugak (8. or.)
 - III.1. Helburua (8. or.)
 - III.2. Norainokoa (9. or.)
 - III.3. Mugak (9. or.)

IV. Ondorioak (9. or.)

Gehigarria: Nafarroako fundazioei buruzko arauen gaineko gogoeta orokor batzuk (13. or.)

Nafarroako Gobernuak Ekonomia eta Ogasun kontseilariak aurkezturiko **alegazioak** (15. or.)

Nafarroako Kontuen Ganbarako lehendakariak Nafarroako Gobernuak Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren alegazioei emaniko **erantzuna** (16. or.)

I. SARRERA

2000ko abenduaren 11n eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak erabaki zuen, Nafarroako Demokratikoen Elkargunea taldeak eskatuta, Kontuen Ganbarari eskatzea "Nafarroako Gobernua eta Arrese Fundazioari buruzko afera guztien gaineko legezketasun kontrola eta fiskalizazio txostena" egitea.

Eskari zehatz horren aurretik, idazki berean, zenbait iruzkin daude. Hona haien laburpena:

- "Arrese Fundazioak Hezkuntza eta Kultura kontseilariarekin Corellako Arte Sakratuko Museoa zaharberitzeko obrak finantzatzeko hitzarmena sinatu baino bi egun lehenago (1999ko irailaren 23an) eman zuen alta Fundazioen Erregistroan.

- Badirudi Fundazio hori zenbait salbuespen fiskal eta tributarioz baliatu dela 1996tik hona; urte hartan, Fundazioen Erregistroa sortu zen.

- Ez dugu alde batera uzten Nafarroako Gobernuak zerikusirik izatea aipatu Museoa erakitzen ari zen enpresaren zorrak ordaintzean, baldin eta enpresa horrek porrot-aitorpena egiten badu".

Eskari hori betetzeko, Nafarroako Kontuen Ganbara arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, 2001eko jarduketa

programan arestian deskribaturiko eskariaren xedeari buruz fiskalizazio txosten bat sartu da.

II. ARRESE FUNDAZIOA ETA NAFARROAKO GOBERNUA

II.1. ARRESE FUNDAZIOA

Arrese Fundazioa (hemendik aurrera, Fundazioa) 1985eko martxoaren 15eko eskritura publiko batez eratu zen Ongintzarako eta Irakaskuntzarako Fundazio moduan, Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilarren Konpilazioko 44. legean ezarritakoaren babesean. 1985eko maiatzaren 29an, Nafarroako Gobernuak gizarte interesekotzat jo zuen fundazioa, eta 1999ko irailaren 21ean Nafarroako Gobernuaren Fundazioen Erregistroan inskribatu zen, 88. zenbakiarekin. Haren hasierako estatuak 1989ko eta 1994ko eskritura publikoen bitartez aldatu dira.

Indarreko estatutuen arabera, ondokoak dira Fundazioaren ezaugarri nagusiak:

1. Izena: Fundazio honek “Fundación Arrese” izanen du izena.

2. Helbidea: Arrese Fundazioaren helbidea Oinetxe Museoa izanen da. Correllan (Nafarroa) dago, eta sarrera nagusia Vallejo kaleko 5. zenbakian dauka.

3. Fundazioaren helburu edo xedeak.

Hona Fundazioaren xedeak:

- Corellako ondare artistiko eta historikoa zainitzen laguntzea, eta La Encarnación Museoan eta Oinetxe Museoan gordetako koadroak, tailak, erretaulak, eskulturak, altzariak, bildumak, liburuak eta agiriak hirian geratuko direla bermatzea.

- Corella hiriari eta Nafarroari heziketa eta kultura elementuak ematea, ikerlariei eta jendeari, oro har, museoetako aretoak, haren liburutegia eta dokumentazio-artxiboak erabiltzeko aukera emanez.

- Liburuak, azterlanak, monografiak eta abar argitaratzea.

- Bere oinordekoengan, José Miguel de Arrese eta haren ondorengoak, errotzea fundatzaileek betidanik Corellari izan dioten maitasuna, haiek eta hiria elkarrekin lotuz patronatuaren bitartez eta Fundazioaren oinetxean bizilekua emanez.

- Corellako biztanleen prestakuntza humano eta kulturala sustatzea, eta laguntza ematea Fundazioaren eraikinetan dauden dokumentuak erabiliz arte gaien ikerketak eta ikerketa historikoak egiten dituztenei laguntzea, laguntza eta bekak

sortuz, baldin eta Fundazioaren egoera ekonomikoak horretarako bidea ematen badu.

- Itunak egitea helburu kulturalak eta ikerketa historikokoak sustatzean interesa duten entitateekin, Fundazioaren gizarte intereseko helburuak lortzeko batera jarduteko; esate baterako, erakusketak, hitzaldiak, ikastaroak eta abar.

4. Fundazioaren ondasunak:

- Corellatik ezin mugituko diren ondasunak dira “La Encarnación Museoa” eta Oinetxe Museoa, haietan dauden arte lan guztiekin. Corellatik kanpora aldi baterako erakusketetara eramateko baidik ezin izanen dira atera, betiere Fundazioko lehendakariaren berariazko baimenarekin.

- Pertsona publiko nahiz pribatuek egin ditzaketen ekarpen, dohaintza, legatu, kontsignazio eta abarrekoak, Fundazioko lehendakariak onartzen dituenak.

- Museoetarako bisita-eskubideengatik, aretoak erakusketak, hitzaldiak ikastaroak eta abar egiteko lagatzeagatik edo Fundazioaren katalogo eta argitalpenak saltzeagatik lor daitezkeenak.

5. Jendaurrera zabaltzea.

Jendeak Fundazioko museoetara nolako sarbidea izanen duen, hura zaindu eta gidatzeko aukeren arabera zehaztuko da; kontuan hartu beharko da, halaber, oinetxeak eginkizun bikoitza duela: museo izatea eta Fundazioko lehendakariaren etxebizitza izatea.

6. Fundazioaren gobernuak.

- Fundazioaren gobernuak, administrazioa eta ordezkaritza bere lehendakariaren eskuetan dago; berariazko ahalmena du, zuzenbidean behar den zabaltasun guztiaz, Fundazioaren izenean eta hura ordezkatzuz hartu-emanak izateko era guztietako pertsona fisiko eta juridikoekin –publiko nahiz pribatuekin– eta Estatuko Administrazioari, Nafarroako Foru Komunitateko, udaletako, korporazioetako eta abarreko enteekin, Fundazioaren funtzionamendu onerako egoki iruditzen zaiona erabaki edo kontratatzeko. Fundazioaren estatuak ere aldatu ahal izanen ditu, komenigarria dela juzgatuz gero, baldin eta sorrerako helburuei eusten bazaie. Lehendakaria ez dagoenean, haren ezkontideak ordeztuko du eginkizunetan; azken hori egon ezean, lehendakariaren ahaidea izan eta Patronatuko Batzordeko kide zaharrena denak ordeztuko du, hurbileneko ahaidegoa dutenetatik hasita, eta lehentasuna emanez gizonezkoari emakumezkoaren gainetik. Lehendakariaren edo hura ordezten duenaren jardutea, aurretik ezarritakoaren araberrakoa, beti guztiz independentea,

librea eta esku-hartze administratiborik gabea izanen da.

- Patronatuko Batzarrak gutxienez ere 9 kide eta gehienez ere 13 izanen ditu; ondokoak jaiotzetik izanen dira Patronatuko kide:

a) Lehendakaritza dagokion fundatzaileen ahaidea.

b) Nafarroako Gobernuko Lehendakaria.

e) Nafarroako Foru Gobernuko Kultura kontseilaria.

d) Corella hiriko alkatea.

Patronatuko gainerako kideak lehendakariak hautatuko ditu; libreki izendatu eta kargutik kendu ahal izanen ditu. Patronatuko Batzarreko kide izatea guztiz doakoa izanen da.

- Lehendakaria hil, ezgai geratu edo karguari uko eginez gero, José Miguel de Arrese y García Monsalve jaunaren ondorengoan artean hark izendatzen duenak hartuko du berehala kargua; inor ere izendatu gabe egonez gero, zilegizko ezkontzatik datorren odolezko ondorengoak hartuko du kargua; horretan, lehentasuna emanen zaio gizonezkoari emakumezkoaren gainetik, eta sexu bera izanez gero, zaharrenari emanen zaio lehentasuna.

Bigarren lehendakariak eta haren ondorengok, berriz, anai-arreben artetik –D. José Miguelen ondorengoak– edo zilegizko ezkontzatik jaiotako euren seme-alaben artetik izendatzen dutenak hartuko du berehala kargua; inor ere izendatu gabe egonez gero, azken lehendakariaren zilegizko ezkontzatik datorren odolezko ondorengoak hartuko du kargua; horretan, gradu bereko ahai-deak izanez gero, lehentasuna emanen zaio beti lerro zuzenari alboko lerroaren gainetik, eta lerro eta gradu berekoen artean, lehentasuna emanen zaio gizonezkoari emakumezkoaren gainetik, eta sexu bera izanez gero, zaharrenari emanen zaio lehentasuna.

- Ondokoak dagozkio Patronatuko Batzarrari:

a) Fundazioaren xedeak fidelki beteko diren begiratzea.

b) Egoki juzgatzen dituen hobekuntzak aztertu eta gomendatzea.

e) Erabakitzen diren beka, poltsa eta bestelako laguntzak banatzea.

d) Lehendakariak aztertzeke ematen dion edozein gairen gainean egoki juzgatzen duena eza-gutu eta gomendatzea.

- Batzarra Lehendakariak deituta bilduko da; deialdia, ahal dela, bilkura egin baino hamar egun lehenagotik egingen da. Urtean behin, gutxienez ere, bilduko da, Fundazioaren Corellako Museo Etxean edo lehendakariak lehen deialdian adierazten duen lekuan. Kideen herenak eskaturik ere bilduko da. Batzarraren bilkura baliozkoa izanen da ere aurretiko deialdirik gabe egiten denean, baldin eta kide guztiek aho batez hala erabakitzen badute. Bertaratzetik ez duten kideen eskuordetzea ere baliozkoa izanen da (baita alde aurretik deialdia egin gabe ere), edozein dela ere bilerara joaterik ez duen batzarkidea.

- Batzarraren erabakiak gehiengoaren botoez hartuko dira; berdinketarik egonez gero, lehendakariaren botoak erabakiko du.

- Patronatuko Batzarreko idazkari bat izendatu ahal izanen da; haren kideetako bat nahiz beste pertsona bat izendatu ahal izanen da, baina azken kasu horretan ezin izanen du botoa eman.

7. Fundazioa deuseztatzea.

Fundazioaren xedeak betetzeko modurik ez edukitzeagatik hura deuseztatu behar izanez gero, Fundazioko lehendakariak nahi duenerako erabiliko du likidazioa egin eta geratzen diren ondasunen gerakina.

II.2. FUNDAZIOEI BURUZKO ARAUAK

Alde batera utziz fundazio-eskubideei buruz Konstituzioaren 34. artikulua dioena eta figura horri buruz Kode Zibilean eta Nafarroako Zuzenbide Zibilaren Konpilazioan jasotako arauak, txosten honen ondorioetarako, azpimarratzekoak dira Fundazioen eta babes jardueren tributu araubidea erregulatu zuen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legeak eta Fundazioen Erregistroaren egitura eta funtzionamendua erregulatu duen azaroaren 11ko 613/1996 Foru Dekretuak xedatutakoak.

Ezin da ahaztu, ezta ere, Fundazioei eta Interes Orokorreko Jardueretan Partehartze Pribatuari eman beharreko Pizgarri Fiskalei buruzko azaroaren 24ko 30/1994 Legeak Nafarroan duen eragina; haren azken xedapenetako lehenak deklaratu du Konstituzioak aitorturiko fundazio eskubidea gauzatzeko baldintza oinarritzkoak arautzen dituzten zenbait artikulua Estatu osoan zuzenean aplikatzekoak direla. Haien artean, azpimarratzekoa da 3. artikulua, non ezartzen baita fundazioek nortasun juridiko propioa izanen dutela haiek eratzeko eskritura publikoa kasuan kasuko fundazioen erregistroan inskribatzen denean; beraz, horren arabera, Nafarroako zuzenbidean indarra duenaz besteko araubide bat ezartzen da nortasun juridikoa eskuratzeko.

Foru legedian ezarritako marko juridikoari dagokionez, ondoko alderdiak azpimarratu nahi ditugu lan honen ondorioetarako:

- Foru Legeak bi titulu dauzka: horietako lehenbizikoak fundazioen tributu-araubide berezia aipatzen du; bigarrenak, ordea, fundazioei eginiko dohaintzen tributu araubidea ezartzen du.

- Lehenbiziko tituluari erreparatuz gero, fundazioen xedeak definitzen dira lehenbizi; baita haiek eratzeko baldintzak, haien estatutuak eta jarduteko baldintzak ere.

- 11. artikulua kontabilitate eta aurrekontu arloetako obligazioak ezartzen ditu. Halaber, Ekonomia eta Ogasun Departamentuan urtero kontuak eta ekitaldi bakoitzeko aurrekontua aurkezteko obligazioa ezartzen du.

- VI. kapitulua tributu-araubide berezia eskuratu eta galtzeari buruzkoa da. Hartan ezartzen da, araubide horri atxikitzeke, fundazioek Ekonomia eta Ogasun Departamentuari eskatuko diotela hori, agiri multzo bat aurkeztuta; funtsean, ondoko agiriak dira horiek: fundazioa eratzeko eskritura, estatutuak, jardueri buruzko azalpen-txosten bat eta Fundazioen Erregistroko izen-ematea. Departamentu horrek, agiri horiek aurkeztu eta gehienez ere 6 hilabeteko epean, erabaki berariazko bat emanen du, eskatutakoa baietsiz nahiz ezetsiz. Gainera, ezarrita dago Departamentuak erabaki hori aipatu epean ematen ez badu, "entitateak aipatu araubide hori aplikatzen ahal duela usteko du, eskaria egin duen egunetik aitzina eta betiere, foru lege honetan aurreikusitako baldintzak eta beharkizunak betetzen baditu". Halaber, araututa geratzen da Departamentuak araubide berezi horretaz baliatzeko behar diren baldintzak bete zeari buruzko egiaztapenak egin ahal izanen dituela aldizka.

- Fundazioek edukiko duten tributu-araubide bereziari dagokionez, funtsean salbuespen eta hobari batzuk dira, sozietateen gaineko zergan eta ondare eskualdaketa eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergan. Halaber, salbuespen eta hobari zenbait izanen dira ondoko toki tributuetan: lurralde kontribuzioa eta jarduera ekonomikoen gaineko zerga.

- Foru legearen lehen xedapen gehigarrian ezarrita dago Lehendakaritza Departamentuan Fundazioen Erregistro bat sortuko dela, eta hartan inskribatuko direla Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilaren Konpilazioko 44. legearen babesean sorturiko eta "Foru lege honetan ezarritako beharkizun eta baldintzak betetzen dituzten" fundazio guztiak, eta haien oinarriko ezaugarriak islatuko dituela. Horri dagokionez, "Ekonomia eta Ogasun

Departamentuak Fundazioen Erregistroari adieraziko dio nork eskuratu edo galdu duen tributu araubide berezia, hantxe ager dadin, baita eraketa eskrituran edo estatutuetan egindako aldaketak ere".

- Foru lege horren xedapen iragankorrak ezarri zuen jada eraturiko fundazioek "1996ko abenduaren 31ra arte izanen dutela Foru lege honetan arautzen den tributu araubideari atxikitzeke, betiere Legean zehazten diren beharkizun eta baldintzak betetzen badituzte". Halaber, ondokoa dio: "emandako epearen barruan eskaera aurkezten ez duten fundazioak ezin izanen dira Foru lege honetan aurreikusitako tributu araubideaz baliatu."

- Geroago, azaroaren 11ko 613/1996 Foru Dekretuak Fundazioen Erregistroaren egitura eta funtzionamendua arautu zituen. Hartan ezarri zen "10/1996 Foru Legeari jarraikiz, inskripzioa egitea ezinbestekoa izanen dela bertan erregulatutako tributu araubideaz baliatu nahi badute". Izena emateko eskariarekin batera aurkeztu beharreko dokumentuak ezartzen ditu; laburbilduz, fundazioa eratzeko agiria, estatutuak eta haien geroko aldaketak, xede eta jardueren txostena eta fundazioa Foru Komunitateko Administrazioaren babespean egon nahi ote duen. Izen emateko eskari hori gehienez ere hiru hilabeteko epean ebatziko du Lehendakaritza kontseilariak, eta baietsizat joko da aipatu epean ebazpenik ematen ez bada. Azkenik, 1996ko abenduaren 31ko epea jartzen du jada sorturiko fundazioen izen-ematea eskatzeko. Halere, ondokoa ere eransten du: "Salbuespenez, sortzaileak edo bestela Patronatuak arrazoizko eskaera egin ondoren, epea luzatzen ahal da, luzapena justifikatzen duten inguruabarrak benetan gertatzen badira."

II.3. ARRESE FUNDAZIOAREN ETA NAFARROAKO GOBERNUAREN ARTEKO HARREMANEN KRONOLOGIA, TRIBUTU ARAUBIDE BEREZIARI ETA FUNDAZIOEN ERREGISTROARI DAGOKIENEZ.

Nafarroako Gobernuak departamentuetan aztertutako espedienteetatik atera dugun informazioaren arabera, honakoak dira Fundazioaren eta Nafarroako Gobernuaren arteko harremani dagozkien gertakari nagusiak:

Alderdi orokorrak

- 1985eko maiatzaren 29an. Nafarroako Gobernuak Arrese Fundazioa gizarte-intereseko ztat deklaratu zuen, ondorio fiskaletarako.

- Martxoaren 2ko 78/1992 Foru Dekretuaz kultur intereseko ondasuntzat, monumentu kategoriarekin, deklaratu dira Corellako Arte Sakratuko

La Encarnación Museoa eta haren barruko ondasun higikor guztiak.

- Diputazioak 1976ko abenduaren 2an hartutako Erabakiaz eta irailaren 2ko 277/1992 Foru Dekretuaz, Fundazioa aurreko arauak jasotako eta 1996ra arte indarra izan zuten onura fiskalez baliatu ahal izan zen. Onura horien jatorria Arrese Fundazioa, ondorio fisikaletarako, gizarte intereseko entitatetzat hartzea da.

- Aurreko legedia indarrrik gabe geratu zen Fundazioen eta babes jardueren tributu araubidea erregulatu zuen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legea indarrean sartzearekin. Lege horretan, aipatzen diren baldintzak betetzen dituzten fundazioek atxiki beharreko araubide fiskal berria ezartzen da.

Ekonomia eta Ogasun Departamentua, 10/1996 Foru Legea dela eta.

- 1996ko azaroaren 26an, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak idazki bat igorri zien jada eraturik zeuden fundazioei, Fundazioen eta babes jardueren tributu araubidea erregulatu zuen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legeak eskatzen zituzten berri emanez. Hartan, bestelako alderdi batzuk eta dokumentazioaz gain, araubide horri atxikitze-ko eskaria aurkeztu eta Erregistroan izena emateko gehieneko data –abenduaren 31– aipatzen dira.

- 1996ko abenduaren 9an, Arrese Fundazioak aurreko idazkiari erantzun zion, tributu araubide berezia aplikatu dadin eskatuz eta behar den dokumentazioa aurkeztuz, salbu eta Fundazioen Erregistroan inskribatuta egoteari buruzko kreditazioa. Ez da jasota ageri Departamentuak horri buruzko ebazpena eman zuenik.

- 1997ko apirilean, Fundazioak 1994tik 1997ra bitarteko sozietateen gaineko zergaren aitortpen-autolikidazioak aurkeztu zituen; haietan, jakitera eman zuen ez duela beste etekinik sortu bere fundazio-xedeetatik ondorioztatzen direnak baino.

- 1997ko ekainaren 20an, Fundazioak 1996. urteko ekitaldiko kontuak igorri zizkion Departamentuari.

- 1998ko ekainaren 22an, 1997. urteko ekitaldiko kontuak igorri zituen.

- 1999ko maiatzaren 20an, 1998ko kontuak igorri zituen.

- 2000ko maiatzaren 24an, 1999ko ekitaldiko kontuak aurkeztu zituen.

- 2001eko urtarrilaren 24an, Departamentuak Fundazioari jakinarazi zion bere estatutuak aldatu

behar zituela, Foru Berriaren Legean ezarritakoari egokitzeko, lehendakariaren eta patronatuaren artean eskumenak banatzeari zegokionean.

- Ez dago jasota Fundazioen Erregistroan izen emana dagoenik, nahiz eta Lehendakaritza Departamentuak egoera hori 1999an jakinarazi zion.

Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentua, 10/1996 Foru Legea dela eta.

- Espedientean eskaria jaso ez bada ere, badi-rudi 1999ko maiatzean Fundazioa erregistroan izena emateko prozedura hasi zela.

- 1999ko ekainaren 17an, Departamentuak Fundazioari eskatu zion zenbait argitasun emateko Patronatuaren osaketari buruz eta Fundazioa Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren babespean egon nahi ote duen jakiteko.

- 1999ko irailaren 9an, Fundazioak aurreko eskariari erantzun zion, eta jakitera eman zion, gainera, ez zuela Administrazioaren babespean egon nahi.

- 1999ko irailaren 21ean, Barne zuzendari nagusiaren ebazpenez, Fundazioa Fundazioen Erregistroan sartu zen, 88. zenbakiaz.

- Erregistro horretan ez dago jasota Arrese Fundazioak tributu araubide berezia duenik.

II.4. NAFARROAKO GOBERNUAK ARRESE FUNDAZIOARI EMANIKO DIRULAGUNTZAK ETA BESTE LAGUNTZA BATZUK.

Gobernuaren eta Arrese Fundazioaren arteko finantza-harremanak ondoko multzoen arabera sistematiza daitezke:

- Museoa mantentzeko dirulaguntzak.
- Zaharberritze lanetarako eta beste xede batzuetarako dirulaguntzak.
- Nafarroako Gobernuak Museoan zuzenean egindako gastuak.

Museoa mantentzeko dirulaguntzak.

Era honetako lehenbiziko laguntza 1986ko museoen arloko lankidetzaren eta laguntza hitzarmena da, Hezkuntza Departamentuak eta La Encarnación Museoak sinatutakoa. Hartan jasota daude zenbait estipulazio funtsean museoak eskainiko duen kultur zerbitzuari buruz; horren truke, Departamentuak milioi bat pezeta jarriko du hura kudeatu, mantendu eta garbitzeko.

Hezkuntza kontseilariaren martxoaren 17ko 274/1986 Foru Aginduaren bitartez, museoen arloko lankidetzaren eta laguntza hitzarmenak ezarri ziren –halako hitzarmenak arautzen dituen aben-

duaren 27ko 249/1985 Foru Dekretuaren babesean–, hain zuzen ere Nafarroako Museoen Sareko bost museo pribatuekin: Berriobeitiko Museo Etnografikoa, Orreagako Museoa, Iruñeko Elizbarrutiko Museoa, Corellako La Encarnación Museoa eta Xabierko Museoa.

La Encarnación Museoarekiko hitzarmena urtero berritu da –gainerako museoekin egin den bezala–, eta urtean behin ere Departamentuak diru kopuru bat jartzen du Museoaren mantentze-gastuetarako eta jendeari zabalik egon dadin laguntzeko. Dirulaguntza hori milioi batekoa izan zen 1985 eta 1987. urteetan; 1,2 milioikoa 1988, 1989 eta 1990. urteetan; 1,2 milioi pezetakoa 1991n eta 1,5 milioikoa 1992tik gaur arte.

Beraz, fiskalizazioaren xede den aldian –1996tik 2000ra bitarte– zentratu, La Encarnación Museoak 7,5 milioi pezetako dirulaguntza jaso du guztira mantentze gastuetarako.

**Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzak.
Nafarroako Museoen Sarea
La Encarnación Museoa**

Ekitaldia	Kontzeptua	Kopurua
1996	Convenio Museo '96	1.500.000
1997	Convenio Museo '97	1.500.000
1998	Convenio Museo '98	1.500.000
1999	Convenio Museo '99	1.500.000
2000	Convenio Museo '00	1.500.000
La Encarnación Museoa, guztira		7.500.000

Zaharberritze lanak egiteko eta beste xede batzuetarako dirulaguntzak

Aztertu dugun aldian, dirulaguntza horiek 103,7 milioi egin dute, ondoko taulan ikus daitekeen bezala.

Museoan zaharberritze eta egokitze lanak eta bestelakoak egiteko dirulaguntzak

Ekitaldia	Kontzeptua	Kopurua
1997	Liburutegia katalogatzea	1.337.850
1998	Etxea zaharberritzea	1.120.584
	Erantsitako etxea husteagatik kalteordainak	2.000.000
	Berrezarpenaren 1. faseari buruzko proiektua	5.292.512
	Zaharberritze lanei buruzko proiekturako materialak eskuratzea	5.000.000
1999	2. faseari buruzko proiektua	773.222
	Proiektuaren aldaketak	2.319.063
	Zaharberritze-lanetarako dirulaguntza	85.000.000
	Gangetako itoginak konpontzea	881.327
Guztira		103.724.558

Dirulaguntzen multzo horretan, zenbait jardue- ra finantzatzeko erabiltzen direnak –esate baterako, liburutegia katalogatzea edo ondoko etxea husteagatik kalteordainak– eta zaharberritzeko obretako fase guztiak laguntzeko erabiltzen direnak –proiektuak, presako konponketak, materialak eskuratzea eta obrak berak egitea–.

Azken horietatik, 85 milioi pezetako obrak egiteko dirulaguntza bat azpimarratu behar dugu. Izan ere, urriaren 11ko 348/1999 Foru Aginduz Corellako Arte Sakratuko Museoa zaharberritu eta egokitzeko Arrese Fundazioaren eta Nafarroako Gobernuaren arteko hitzarmena onetsi zen. Hona foru agindu horren oinarriak:

- a) Museoa izugarri hondatuta egotea.
- b) Museoa jendeari zabaltzeak gizartearentzat duen interesa.
- c) Museo hori izatea Nafarroako Erriberan arlo horretan dagoen bakarra.

Hitzarmenak 10 klausula dauzka. Haiei buruzko ondoko laburpena egin dugu:

“2gn. Arrese Fundazioak arkitektura proiektu bat enkargatu zuen; proiektu hori, behar den baimenarekin, praktikan jarriko da hitzarmena sinatu ondoren. Proiektuak 152.360.871 pezetako aurrekontua zuen.

3gn. Vianako Printzea Erakundeak 85.000.000 pezetako ekarpena –guztiaren ehuneko 55,7– eginen zuen; Arrese Fundazioak, berriz, 67.360.871 pezeta jarriko zituen.

4gn. Vianako Printzea Erakundeak gastu osoa 1999ko ekitaldian egiteko konpromisoa hartu zuen; Arrese Fundazioak, berriz, 2000n egingen zuen gastua.

5gn. Aldeek guztira 152.360.871 pezetako inbertsioa egitea aurreikusi dute museo zaharberritu eta egokitzeko. Inbertsioa aurreikusitakoa baino handiagoa bada, ordea, Vianako Printzea erakundeko teknikariek proposamena aztertu eta behar den txostena emanen dute, haien parte-hartze handiagoari buruzko erabakiaren oinarri.

6gn. Arrese Fundazioak museo zaharberritu eta egokitzeko kontratazioa kudeatzeko jarduerak egingen ditu.

7gn. Hona ordainketak egiteko baldintzak:

a. Hasierako ordainketa: Hurrengo 30 egune- tan, 85 milioi pezeta bitarte, BEZa barne, materia- lak eskuratu eta instalazioetarako ekipoak eroste- ko.

b. Gainerakoa. Hilabeteroko obra ziurtagiri bakoitzetik 90 egunetara, 2000ko urtarrilaren 31tik hasita. Ziurtagiri bakoitzean, kasua bada, aurretik egin den material eskuraketari dagokion kopurua- ren ordainketa deskontatuko da.

9gn. 1999ko ekitaldi ekonomikoko egin beharreko ordainketen ziurtagiriak aurkeztu ahala ordainduko da dirulaguntza.

1999ko azaroaren 11n, Arrese Fundazioak 85 milioiak ordaintzeko eskatu zuen; ordainketa hori abenduaren 31ko 658/1999 Ebazpenaz onetsi zen.

1999ko abenduan, Arrese Fundazioak obraren exekuzioari buruz enpresa batekin izenpeturiko kontratua igorri zion departamentuari. Kontratuak 155 milioi gehi BEZa egiten zuen, hau da, 179,8 milioi pezeta. Obra bukatzeko aurreikusitako eguna 2000ko abuztuaren 20a zen.

2001eko urtarrilaren 9an, Arrese Fundazioak adjudikazioa hartu zuen enpresarekiko kontratuari amaiera eman ziola jakinarazi zion departamentuari, kontratua ez zelako betetzen ari; halaber, obrak egiteko epea 2001. urteko ekitaldira arte luzatzeko eskatu zuen. Administrazioak baiezkua eman zion eskariari.

Fundazioarekin izandako elkarrizketen arabera, une hauetan Fundazioak berak hartu du zuzenean obrak egiteko ardura, eta ekitaldi honetan bukatuko dituztela aurreikusi dute.

Nafarroako Gobernuak museoan zuzenean gastatu duena.

Aurreko dirulaguntzez gainera, Gobernuak museoaren eraikina zaharberritzeko eta haren ondasun higigarriak errestituziozko gastuak kudeatu eta finantzatu ditu; guztira 49,6 milioi inbertitu ditu horretan. Hona xehetasunak:

Nafarroako Gobernuak La Encarnación Museoan zuzenean egindako gastuak.

Ekitaldia	Kontzeptua	Kopurua
1996-1997	Teilatuak zaharberritzeko obrak eta bestelakoak	34.845.218
1997-1998	Klaustroko hormak eta aretoak konpontzeko lanak	4.999.088
1999	Museoko obretako luerazketa	158.920
2000	Museoko ondasun higigarriak zaharberritzea	9.500.000
Gastu zuzenak, guztira		49.503.226

Gastu hauek Nafarroako aurrekontu orokorretako kasuan kasuko kontusaileri egozten zaie, eta Gobernuaren beraren zerbitzuek kudeatu eta tra-

mitatzen dituzte; haien justifikazioa da Fundazioak bere ondasunen hondatze atzeraezina saihesteko behar diren presako obrei ekiteko diru aski ez izatea.

Azkenik, azpimarratzekoa da 2000ko abenduaren 22an Nafarroako Gobernuaren eta Audenasaren arteko lankidetzaren hitzarmen bat sinatu zela Nafarroako ondare historikoaren intereseko jarduerak babesteko. Hitzarmen horren helburua da Corellako Lan Encarnación Museoa zaharberritzea, proiektuan aurreikusitakoa betez eta haren berri zabaltzeko ekintzetan parte hartuz eta lagunduz. Hitzarmen horren ondorioz, Audenasa enpresak bere gain hartzen du 50 milioi pezeta gehi BEZa –hau da, 58 milioi pezeta– ordaintzeko konpromisoa, 2000 eta 2003 bitarte egin beharreko lau ordainketatan, egindako obra edo instalazioei nahiz bestelako errestituzio-lanei buruzko ziurtagiriak eta Vianako Printzea Erakundearen ikus-onespena aurkeztuta. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak bere gain hartzen du xede horretarako beste hainbesteko diru-ekarpena –gutxienez ere– egiteko konpromisoa.

Hitzarmen hori Nafarroako Gobernuak eta Audenasak 1997ko abenduaren 10ean sinaturiko akordioaren baitan dago, hain zuzen ere Nafarroako Autobidearen lehen fasea eraiki, zaindu eta ustiatzeko kontratua aldatzeko eta aldaketa horrekin loturiko beste konpromiso batzuk ezartzeko akordioa izan zen. Akordio horren hirugarren klausulan zehaztuta daude, alde batetik, Audenasak autobidean 1998tik 2000ra bitartean egiten dituen inbertsio berriak, 1.200 milioi bitartekoak, gehienez ere; bestetik, Nafarroako ondare historiko eta artistikoa babestu, zaindu eta zaharberritzeko bestelako jarduketak, 50 milioi bitartekoak, gehienez ere.

III. HELBURUA, NORAINOKOA ETA MUGAK

III.1. HELBURUA

Parlamentuaren eskaria betetzeko eta Nafarroako Kontuen Ganbara arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, 2001. urterako Jarduketako Programan “Nafarroako Gobernuak eta Arrese Fundazioari buruzko afera guztien gaineko legezkotutasun kontrola eta fiskalizazio txostena” sartu da.

Lan horrekin, ondoko helburuak lortu nahi dira:

1. helburua. Nafarroako Gobernuak Arrese Fundazioari 1996tik 2000ra bitarte eman dizkion dirulaguntzak eta bestelako laguntzen zenbatekoa kalkulatzeko.

2. helburua. Fundazioa Fundazioen Erregistroan inskribatzeko prozesuan eta Fundazioak jasotako dirulaguntzen eta bestelako laguntzen ematea, kontrola eta jarraipenean legezketasun printzipioa bete ote den egiaztatzea.

3. helburua. Nafarroako Gobernuak Fundazio horrekin izaniko harremanetan izan dituen finantza-arriskuak aztertu eta, kasua bada, kalkulatzeko, hain zuzen ere Arte Sakroko Museoaren zaharberritze obrek izandako kostu handiagoaren ondorioz.

Egindako lanaren emaitza gisa, txosten honi "gehigarri" bat erantsi diogu, non Nafarroako fundazioei buruz egun dauden arauak buruzko zenbait gogoeta egiten baitugu.

III.2. NORAINOKOA

Aurreko helburuak kontuan harturik, lanaren lehenengo ardatza izan da zehaztea zein izan diren Fundazioari emaniko laguntza publikoak; bigarrenik, kontzesio baldintzen betetze maila eta botere publikoek egiten duten kontrol eta jarraipena aztertu nahi dira.

Gure lana abiatzeko data gisa, 1996ko ekitaldia hartu dugu; izan ere, urte hartan Fundazioen eta babes jardueren tributu araubidea erregulatatu zuen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legea sartu zen indarrean.

Metodologiari dagokionez, lortu nahi diren helburuak aintzat harturik, ganbera honek erabili ohi dituen prozedurak erabili ditugu, bere Auditoria Gidetan jasota dituenak eta Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolerako Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak sektore publikoaren auditoriako onetsiriko arau eta printzipioei jarraituz.

Berariaz:

- Funtsean, Nafarroako Gobernuak ondoko departamentuei dokumentazioa eta informazioa eskatu eta aztertu da:

a) Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentua.

b) Ekonomia eta Ogasun Departamentua.

c) Hezkuntza eta Kultura Departamentua.

- Ekonomia eta Ogasun Departamentuari Arrese Fundazioak 1996tik 2000ra bitartean lortutako onura fiskalei buruzko kalkulua edo estimazio bat egiteko eskatu genion.

- Bilera bat izan dugu Arrese Fundazioaren lehendakariarekin.

III.3. MUGAK.

Gure lanean aurkitutako mugei dagokienez, bereziki aipatu behar Fundazioak sozietateen gaineko zergaren aitorpen-autolikidazioa ez dituela aurkeztu; hori dela eta, ezinezko suertatu zaigu zehaztea eta kalkulatzeko, kasua bada, zerga horretan aplikaturiko salbuespen eta hobariak.

Txostenak lau atal ditu; haietan, esparru orokorra eta egindako lanaren helburuak eta ondorioak islatzen dira. Gainera, Nafarroan fundazioei buruz indarrean dauden arauak buruzko gehigarri bat ere erantsi dugu.

Azterketa lana 2001eko otsail eta martxoan egin du bi auditoretza-teknikarik eta auditore batek osaturiko lantalde batek, eta Kontuen Ganbarako zerbitzu juridiko, informatiko eta administrazioen etengabeko laguntza izan dute.

Eskerrak eman nahi dizkiegu gure lan honetan esku hartu duten guztiei, eman diguten laguntza-rengatik.

IV. ONDORIOAK.

Egindako lanaren norainokoa eta mugak kontuan harturik, ondoren azaltzen ditugu egindako lanaren ondorio nagusiak.

1. Arrese Fundazioa 1985ean eratu zen, Nafarroako Foru Zuzenbide Zibileko Konpilazio legearen babesean. Fundazio honen helburuen artean, Oinetxe-Museoan eta Arte Sakroko La Encarnación Museoan dagoen ondare historikoaren kontserbazioa azpimarratu behar da.

Azken horri dagokionez, nabarmendu behar da 1985etik Nafarroako Museoen Sarean dagoela, eta 1992tik kultur intereseko ondasun gisa deklaratu dagoela, monumentu kategoriarekin.

1. helburua. Laguntzak kalkulatzeko.

2. Fiskalizaturiko aldiak, 1996tik 2000ra bitartekoan, Arrese Fundazioak Nafarroako Gobernuaren ondoko laguntza zuzen eta zeharkakoak jasotzeko:

Kontzeptua	Kopurua
La Encarnación Museoaren mantentzeko dirulaguntzak	7.500.000
Museoaren zaharberritzeko obrak diruz laguntzea	103.724.558
Nafarroako Gobernuak Museoaren zaharberritzeko egindako gastu zuzenak	49.503.226

Ekonomia eta Ogasun Departamentuak emandako informazioaren arabera, 1996 eta 1997. urteetako ekitaldietan, Fundazioak ziurtatu du bere etekin guztiak salbuetsita daudela sozietateen gaineko zergatik. 1998 eta 1999. urteetako ekitaldietan, ez zuen zerga horren ez deklaraziorik, ez ziurtagiririk aurkeztu; horrenbestez, ezin izan dira kalkulatu Fundazioak, kasua bada, izan dituen salbuespen eta hobari fiskalak.

Halaber, ez da bestelako salbuespen edo hobaririk jasota ageri Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren gainerako zergetan.

Azkenik, 2000ko abenduaren 22an, Nafarroako Gobernuak eta Audenasak lankidetzaren hitzarmen bat sinatu zuten, Nafarroako ondare historikoaren intereseko jarduerak babesteko. Hitzarmen horren helburua da Corellako La Encarnación Museoa zaharberritzea, eta haren arabera Audenasak 50 milioi pezeta, gehi BEZa, ordainduko ditu lau zatitan 2000tik 2003ra bitartean. Nafarroako Gobernuak bere gain hartu du xede horretarako gutxienez ere beste hainbeste diru jartzea.

2. helburua. Legezkotasun printzipioa betetzea.

3gn. Legezkotasun printzipioa betetzea dirulaguntzak eta bestelako gastuak ematerakoan.

- Museoa mantentzeko dirulaguntzak. Dirulaguntza horien tramitazioa eta ematea Dirulaguntzei buruzko Foru Legeko printzipioen arabera ak dira; salbuespen bakarra da ez dela egiaztatu onuradunak bere obligazio fiskalak betetzen ote dituen.

- Zaharberritzeko dirulaguntzak eta bestelako laguntzak. Ondoko alderdiak dira azpimarratzekoak, obligazio fiskalen betetzea ez egiaztatzeaz gainera:

a) Dirulaguntza batzuei babesa emateko arau gisa, museoen hitzarmen orokorra aipatzen da. Hitzarmena Gobernuak eta Fundazioak sinatu zuten, baina haren helburuak ez zuen berariaz jasotzen emandako dirulaguntza batzuen tipologia.

b) Beti ez da txosten teknikorik ageri, dirulaguntzaren xedeari babesa eman eta haren betetzea bermatzen duenik.

c) Ez dago inon jasota dirulaguntzaren benetako xedeari buruzko egiaztatze materialik. Hori bereziki nabarmena da materiala erosteko 5 milioiko diru-laguntzaren kasuan.

d) Museoa zaharberritzeko 85 milioi pezetako hitzarmenari dagokionez:

1. Ez dago jasota zaharberritzeko obra-proiektua baimentzeko egintza administratiborik, ez eta haren behin betiko proiektua dagoenik ere.

2. Ez dago txosten teknikorik proiektuaren egokitasunari buruz; halakoak eskatu behar dira kultur intereseko ondasun guztietan egitekoak diren obren kasuetan. Gainera, txosten horrek bidea emanen luke aipatu proiektuan jada diruz lagundutako zaharberritze lanek eta etorkizunean, kasua bada, planteatu daitezkeen gainerakoek zein eragin duten jakiteko.

3. Departamentuko teknikariek ez dute ez txostenik egin ez gainbegiratu ere jasotako obra ziurtagiriak.

4. Espedientean ez dago obren egungo egoerari buruzko eta jarraipenari buruzko txostenik, salbu eta epea zabaltzeko Fundazioak eginiko eskaria.

Hala eta guztiz ere, Departamentuko arduradunek adierazi digute bilera ugari egin dituztela Fundazioko arduradunekin Museoaren zaharberritze jarduketa guztiak planifikatu eta koordinatzeko.

- Administrazioak zuzenean egindako gastuak. Gainbegiraturako espedienteak kontratazioari buruzko lege indardunean ezarritakoaren arabera tramitatu dira. Hala eta guztiz ere, nabari da jabe partikularren monumentu historiko eta artistikoak babesteko Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak nolako esku-hartze zuzena izan dezakeen arautzeko Estatuko legeak garatuko dituen arau propio bat falta dugula.

4gn. Fundazioen Erregistroa.

Fundazioen araubide fiskal berezia arautzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legeak 1996ko abenduaren 31 bitarteko epea ezarri zuen legea indarrean sartu baino lehen sortutako fundazioek Fundazioen Erregistroan izena emateko eskaria egin eta araubide fiskal bereziari atxikitzeko. Hala eta guztiz ere, 1996ko azarora bitartean, ez zen erregistro hori egiazki sortu; beraz, benetan emandako epea, 39 egunekoa, txikiegia da fundazioak eta haien estatutuak lege berriek eskatzen dutenari egokitzeko. Hori ongi garrantzitsua da, aipatu foru arauak argi eta garbi ezartzen baitute "emandako epearen barruan eskaera aurkezten ez duten fundazioak ezin izanen dira Foru lege honetan aurreikusitako tributu araubideaz baliatu...". Hori dela eta, azpimarratu beharrekoa da Estatuko legeek 2 urteko epea aurreikusten dutela, eta beste bi urtez ere luzatu ahal izanen dela, lege berrietara egokituriko sorrera estatutuak aurkezteko; halaber, Estatuko legeek ezartzen dute

epe horretan izena ematen ez duten fundazioek gero ere eman ahal izanen dutela, baldin eta ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

Baina, gainera, epe laburregi hori ez dator bat gero eratzen diren fundazioei inolako mugarik ez ezartzearekin, ez horretarako, ez araubide bereziari atxikitzeko eskaria aurkezteko ere.

- Arrese Fundazioak 1996ko abenduan eskatu zion Ekonomia eta Ogasun Departamentuari 10/1996 Foru Legean ezarritako araubide fiskalari atxikitzeko, eta eratu zeneko eskriturak, estatu-tuak eta azalpen-txosten bat aurkeztu zituen; hala ere, ez zuen kreditatu Erregistroan izena emanda zegoenik, aipatu foru legeak ezarri bezala. Ez dago inon jasota Departamentuak eskariari bera-riazko ebazpenik eman duenik, ez eta Fundazioari inolako ohartarazpenik egin zaionik ere, izena eman gabe egoteagatik. 2001eko urtarrilera arte itxaron behar da Departamentuaren komunikazio bat egoteko, baina fundazioa eratu zeneko estatu-tuen artikulua bat aldatu beharri buruzkoa da.

Horrenbestez, Fundazioak onura fiskalak eskuratzeko eskaria ez zegoen osorik, eta Administrazioak horri buruz ohartarazi behar zion Fundazioari, akatsa zuzentzeko epe bat emanez. Jarduteko modu horren ondorioz, ezin da ondorioztatu eskari hori ezetsi denik edo iraungirik dagoenik, baina ezin da ere jo une horretan araubide fiskal bereziaz baliatzeko bidea eman zitzaio-nik Administrazioaren isiltasunaren ondorioz. Horri guztiari, gainera, erantsi behar zaio Departamen-tuak berak Fundazioaren aurrekariak ere bazitue-la, eta Fundazioak urtero-urtero bere urteko kon-tuak igorri dizkiola Departamentuari; hartara, Fundazioak beti bete izan ditu tributu araubide bereziari bildutako entitateentzat ezarrita dauden baldintzetako bat.

- 1999ko irailean, Barne zuzendari nagusiaren ebazpenez, Arrese Fundazioa Fundazioen Erre-gistroan inskribatu zen; une hartantxe, berez, osatu zen formalki Fundazioak 1996an aurkezturi-ko eskaria, eta une horretatik bertatik berriz ireki zen Ekonomia eta Ogasun Departamentuak aur-kezturiko dokumentazioa aztertu eta behar den ebazpena emateko Fundazioei buruzko Foru Legeak ezarritako 6 hilabeteko epea.

Horrenbestez, gure ustez, 1996ko abenduan Fundazioak, aurreikusitako epearen barruan, Eko-nomia eta Ogasun Departamentuari araubide fis-kal bereziari atxikitzeko eskaria aurkeztu zionean, Departamentuak ohartarazi behar zion eskaria osatu gabe zegoela, eta epe bat eman behar zion akatsa zuzentzeko. Bestalde, Fundazioa formalki Fundazioen Erregistroan 1999ko irailera arte ins-

kribatu ez bazen ere, 1996tik 1999ra bitartean, de facto araubide horri atxikia balego bezala jardun du, arauak eskatzen duten kontabilitate-dokumen-tazioa aurkeztuaz –nahiz eta partzialki izan– eta Foru Komunitateko Administrazioak horri buruzko inolako ohartarazpenik egin gabe.

5gn. Obligazio fiskalak eta kontabilitateari buruzko informazioa bidaltzeko betebeharra bidal-tzekoak betetzea.

Ekonomia eta Ogasun Departamentuarekin edukitako harremanetan, araubide fiskal bereziari eta Fundazioaren Erregistroari dagozkion alder-diez gainera, ondokoak azpimarratu behar ditugu:

- Sozietateen gaineko zerga. 1999ko apirilean, Fundazioak zerga horren 1994tik 1997ra bitarteko aitopenak aurkeztu zituen; ez dago inon jasota, dena den, txosten hau idazteko eguna bitartean, Fundazioak hurrengo ekitaldietako aitopenak aur-keztu dituen. Hori dela eta, ondoko alderdiak azpi-marratu behar ditugu:

a) Aurkezteko eredu, 1995eko aitopena bitartean indarra izan duena, gizarte intereseko-tzat edo ongintzazkotzat deklaraturiko entitateei aplikatu behar zitzaien; horixe zen Arrese Funda-zioaren kasua. Eredu horretan, jasota geratu zen entitateak ez zuela aitopen-autolikidazioa aurkez-ten, eta egiaztatzen zen ez zuela sorrerako jar-duerakoez bestelako etekinik lortu. Etekin horiek, ekitaldi horietan indarra zuen legediaren arabera, salbuetsirik zeuden guztiz eta ez zen autolikida-ziorik eskatzen.

b) Hala eta guztiz ere, 1996ko ekitalditik aurre-ra, Fundazioen tributu araubidea ezarri zuen 10/1996 Foru Legea eta Sozietateen gaineko zer-gari buruzko 24/1996 Foru Legea indarrean sar-tzearekin bat, fundazioen tributu obligazioak alda-tu ziren. Hartara, araubide bereziari atxikitakoek, ekitaldian zehar lorturiko errenta guztiak, salbue-tsitakoak eta salbuetsi gabekoak, adierazten dituen deklarazioa aurkeztu behar dute. Tributu araubide horri atxikirik ez daudenak, gure ustez, sozietateen gaineko zergari buruzko lege oroko-rrek ezarritako obligazio arruntak bete behar dituz-te; izan ere, lege horien arabera, aitopena aur-kezteko betebeharretik salbuetsirik daude soilik “irabazi asmorik gabeko elkarteak” –figura juridiko hori eta fundazioena ezberdinak dira–. Hala eta guztiz ere, azken egoera horri dagokionez, gure ustez egungo legeria nahasgarria da; hori dela eta, gure ustez argitu behar da, zehaztasunez, zein diren tributu araubide bereziari bildurik ez dauden fundazioen obligazio fiskalak eta tributu araubidea. Horri buruzko zenbait iruzkin jaso ditu-gu txosten honen gehigarrian.

Horrenbestez, gure ustez, Arrese Fundazioak tributu araubide berezia aitortuta duen alde batera utzita, 1996tik hasi eta 1999ra bitarteko bere etekinen autolikidazioa aurkeztu behar zuen, salbuesiena eta salbuesi gabekoena. Hala eta guztiz ere, azpimarratzekoa da Fundazioak Ekonomia eta Ogasun Departamentuari igorritako kontabilitate-informaziotik ezin dela ondorioztatu hertsiki sorrerakoak zirenez bestelako jarduera batzuen ondoriozko errendimendurik egon denik.

- Ondare eskualdaketa eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga. Ez dago inon jasota fiskalizaturiko aldiaren Fundazioaren aldeko inongo salbuespenik egin denik.

- Beste zerga batzuk. Fundazioari eginiko PFEZaren atxikipen batzuegatik dirusarrera batzuk ageri dira Ogasunean, 1998koak -4. hiru hilekoa- eta 1999koak -2, 3 eta 4. hiru hilekoa-; atxikipen horiek profesionalak egindako lan batzuen gainekoak dira.

- Fundazioak, urtero, bere jardueren garapena islatzen duen kontabilitate-informazioa aurkeztu izan dio Departamentuari. Hala eta guztiz ere, informazio hori ez da osoa, 10/1996 Foru Legearen 11. artikulua ezarritakoaren arabera, ez baitu emaitzen konturik aurkeztu, ez eta urteko txostenik edo hurrengo ekitaldirako aurrekonturik ere; gainera, ez dago egokiturik irabazi asmorik gabeko entitateentzako kontabilitate plan orokorrean ezarritako baldintzei, Fundazioari exijitu behar zaion moduan. Ez da inon ageri Departamentuak ez gai horri buruzko komunikaziorik, ez eta igorritako informazioa aztertuko duen txostenik helarazi dionik Fundazioari.

3. helburua. Nafarroako Gobernuak zaharberritze obren kostuaren balizko gehikuntza dela-eta etorkizunerako bere gain hartu dituen finantza arriskuak.

6gn. Gure ustez, Foru Ogasunarentzako finantza-arriskurik egonez gero, Fundazioarekin Arte Sakroko Museoaren eraikina zaharberritzeko sinaturiko hitzarmenaren seigarren klausula kontuan harturik, ondoko baldintzak bete beharko dituzte:

- Fundazioak alde zuzenetik eta idatziz eskatzea.

- Hezkuntza Departamentuko zerbitzu teknikoek horri buruz prestaturiko txostena, non aurreikusitako obren gehikuntza, haren arrazoizkotasuna eta kasua bada, fondo publikoetan izan ditzakeen finantza-eragin aztertuko den.

Aurreko bi baldintza horiek betetzen ez badira, inbertsioaren balioak izan dezakeen gehikuntza

edo igoera osoa Museoko titularraren kargura izanen da.

Azterketa lana bukatu artean eginiko azterketari jarraituz, espedientearen ez dago aurreko txostenetako bat bera ere.

Laburbilduz, **ondorio orokor gisa**, ondokoa azpimarratu behar dugu:

- Fiskalizaturiko aldiaren, 1996tik 2000ra bitartekoa, Arrese Fundazioak guztira 111,2 milioi pezeta jaso zituen Nafarroako Gobernuak museo-instalazioak mantendu eta zaharberritzeko emaniko dirulaguntzen bitartez. Halaber, Gobernuak, zuzenean eta xede berarako, 49,5 milioi inbertitu ditu guztira. Bestalde, Nafarroako Gobernuak eta Audenasa enpresa publikoak bakoitzak beste 50 milioi pezeta jartzeko konpromisoa ere badago, biek Nafarroako ondare historiko eta artistikoa zaharberritzeko sinaturiko hitzarmenaren ondorioz.

- Dirulaguntza horiek Hezkuntza eta Kultura Departamentuak eman ditu, eta antzeman ahal izan dugu ez dela egiaztatu onuradunak -Arrese Fundazioak- obligazio fiskalak bete ote dituen; gainera, espediente administratiboetan ez dira beti ageri zaharberritze proiektuen egokitasun eta exekuzioa eta dirulaguntzen xede direnen betezea bermatzeko behar diren txosten teknikoak.

- Fundazioa 1999ko irailean geratu zen formalki inskribaturik Fundazioen Erregistroan; orduantxe osatu zen 1996an aurkezturiko eskaria, eta, horrenbestez, Fundazioak onura fiskalez baliatzeke 10/1996 Foru Legeak ezarritako baldintza guztiak betetzen zituen. Hala eta guztiz ere, de facto, Fundazioak 1996tik 2000ra bitartean araubide bereziari atxikirik balego bezala jardun du, eta, gainera, Foru Administrazioak ez dio horri buruzko inolako ohartarazpenik egin.

- Arrese Fundazioak obligazio fiskalak betetzeari dagokionez, gure ustez 1996tik 1999ra bitarteko ekitaldien sozietateen gaineko zergaren aitortpenak aurkeztu behar zituen, tributu araubide bereziari atxikirik dagoen ala ez dagoen begiratu gabe. Hala eta guztiz ere, aitortu behar da arlo honetan egun indarrean dauden foru legeak nahasgarriak direla, eta interpretazio ezberdinak egin daitezkeela tributu araubide bereziari atxikirik ez dauden fundazioen obligazio fiskalei buruz.

Bestalde, urtero Fundazioak bere jarduerari buruzko kontabilitate-informazioa igortzen dio Ekonomia eta Ogasun Departamentuari, baina informazio hori ez dago behar bezala osaturik eta ez dagokie indarreko arauak ezarritakoei.

Bi kasu horietan ez dago inon jasota Departamentuak akats horietaz ohartarazteko ezer egin duenik.

- Arte Sakroko Museoa zaharberritzeko hitzarmenari dagokion espedienteko dokumentazioan ez daude Nafarroako Gobernuak museo horren zaharberritze obren finantzaketan partehartze handiagoa izatea justifikatzeko behar diren agiri eta txostenak, hitzarmeneko klausuletan eskatzen den bezala.

- Nola edo halako koordinazio falta bat antze-man ahal izan dugu horretan, ukituta dauden Nafarroako Gobernuko departamentu ezberdinen jarduketan; koordinazio falta horrek eragina izan du bai erregistroko alderdietan eta Fundazioen araubide fiskal berezian, bai dirulaguntzak arauk ezarritako baldintzak bete gabe eman eta ordaintzean ere.

Ignacio Cabeza del Salvador auditore jauna arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarreko araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2001eko uztailaren 4an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

GEHIGARRIA: NAFARROAKO FUNDAZIOEI BURUZKO ARAUEN GAINEKO GOGOETA OROKOR BATZUK.

Ganbera honek ondokoa adierazi nahi du fundazioen gainerako foru arauetara, erregistroan izena emateko prozedurari eta araubide fiskal bereziari atxikitzeari buruz:

1go. Nortasuna eskuratzea.

Azaroaren 24ko Fundazioei buruzko 30/1994 Legetik aurrera, fundazioek nortasun juridikoa izanen dute fundazioaren sorrerari buruzko eskritura Fundazioen Erregistroan inskribatzen den unetik aurrera. Lege horretako 3. artikuluan ezarrita dago hori, eta legea, azken xedapenetako lehena-aren arabera, nahitaez Estatu osoan, Nafarroan ere bai, aplikatu behar da, Konstituzioaren 34. artikuluan fundazio-eskubidearen baliatzeaz ezarritako oinarritzko baldintzak arautzen dituelako. Estatuko zuzenbideak, azken batean, fundazioa eskritura publiko baten bidez eta Fundazioen Erregistroan inskribatuz formalizatzea exijitzen du, nortasun juridikoa izanen badu.

Nafarroako arauak, aldiz, fundazioaren eraketa eskritura publikoaren bitartez formalizatzea eta Erregistroan inskribatzea tributu araubide bereziari atxikitzeak ez du eskatzen. Horrenbestez, batera aurki daitezke Nafarroako Foru Zuzenbide

Zibilaren Konpilazioaren babesean sorturiko fundazioak eta aipaturiko 10/1996 Foru Legean ezarritako baldintza formal eta materialak biltzen dituztenak. Lehenbizikoak ez daude Fundazioen Erregistroan inskribaturik eta ezin dira tributu araubide bereziaz baliatu; bigarrenak, ordea, erregistro horretan inskribatu behar dira araubide fiskal bereziari atxiki nahi izanez gero.

Horrenbestez, kontraesan bat dago foru arauaren eta Estatukoaren artean: gure ustez konpondu beharreko zerbait da hori.

2gn. Aldi baterako araubidea.

Aipaturiko Fundazioei buruzko 30/1994 Legeak hasierako bi urteko epea ezarri zuen, indarrean sartu zenetik kontatzen hasita, aurretik dauden fundazioek beren estatutuak hartan ezarritakoari egokitzeko eta Fundazioen Erregistroan estatutu horiek aurkezteko. Epe hori iraganik –beste bi urtez ere luzatu ahal izanen da, aparteko kasuetan–, egokitu ez diren fundazioak ezin izanen dira baliatu indarreko legean ezarritako onura fiskalez, ez eta dirulaguntzarik edo bestelako laguntzarik jaso ere, aurreikusitako betebeharrak betetzen ez diren bitartean; hau da, zabalik uzten du atea fundazioak interesatzen zaien unean atxikitzeak araubide fiskal bereziari.

Foru legeetan ezarritako aldi baterako araubidea askoz ere estuagoa da. Alde batetik, 10/1996 Foru Legeak aipaturiko epea askoz ere laburragoa da; izan ere, kontuan harturik Erregistroa 1996ko azaroaren bukaeran dela funtzionatzen hastekoa eta aurretik dauden fundazioak lege berrira egokitu eta erregistroan izena emateko epea 40 egunera ere ez dela iristen. Bestalde, fundazioak erregistroan izena ez ematearen ondorioak ez dira oso erabatekoak; hain zuzen ere, Fundazioei buruzko Foru Legeko xedapen iragankorreko 2. idatz-zatiak dioen bezala “emandako epearen barruan eskaera aurkezten ez duten fundazioak ezin izanen dira foru lege honetan aurreikusitako tributu araubideaz baliatu”. Zehaztasun hori, gainera, kontraesanean dago foru legeak berritik eratzen diren fundazioei inongo eperik ez jartzearekin.

3gn. Babesa.

Fundazioei buruzko Estatuko legeen aldean antzeman daitezkeen ezberdintasunetan beste bat da “babes” araubideari dagokiona, halakotzat hartuta fundazio-eskubidearen erabilera kontrolatzeko eta fundazio baten eraketa eta funtzionamenduaren legezkotasuna bermatzeko Administrazioak duen eginkizuna. Ez Zuzenbide Zibilaren Konpilazioak, ez 10/1996 Foru Legeak ez dute berriaz aitortzen halako figura bat dagoenik,

baina konpilazioak bai aurreikusten du esku-haritze administratibo baten aukera; hala eta guztiz ere, eta harrigarria bada ere, erregistroa arautzen duen foru dekretuak –hau da, erregelamendu arau bat da– Foru Komunitateko Administrazioaren Babes bat badagoela aipatzen du, eta fundatzailearen edo patronatuaren esku uzten du Administrazioaren kontrol horren pean egoteko aukera.

4gn. Baldintzen betetzea egiaztatzeko erantzukizuna duten departamentuak.

10/1996 Foru Legeak Ekonomia eta Ogasun Departamentuari esleitzen dio fundazioek eskatzen zaizkien baldintza formalak betetzen dituzten ala ez eta interes orokorreko helburuak betetzeari buruzko materialak ere baloratzeko eginkizuna; hori, dena den, ezinbesteko baldintza da soilik tributu araubide bereziari atxikitzeko. Paradoxikoki, Fundazioen Erregistroa garatzen duen foru dekretuak Lehendakaritza, Barne, eta Justizia Departamentuari esleitzen dio Ekonomia eta Ogasun Departamentuak aztertu behar dituen gai berei buruz informazioa emateko ardura, baina Fundazioen Erregistroan izena ematearen helbururako soilik.

Bestalde, arauak 6 hilabeteko epea ematen dio Ekonomia eta Ogasun Departamentuari behar den ebazpena emateko; Lehendakaritza Departamentuak, ordea, hiru hileko epea du.

Beraz, esleipen bikoitz horrek eta epeen artean dagoen ezberdintasunak zenbait disfuntzio eta koordinazio falta sortu ditu Administrazioaren zerbitzuetan, eta bide eman du gaiari buruzko txosten kontraesankorrak ere egoteko.

5gn. Fundazioen Erregistroari buruzko araupetze eskasa.

Fundazioen Erregistroari buruzko araupetze eskasa dagoela antzeman ahal izan dugu; izan ere, foru arauak ondoko alderdietara mugatzen du fundazioek izena ematearen betebeharra.

- Sorrerako estatutuak eta haiei gero egin zaizkien aldaketak, fusioak eta deuseztatzeak.
- Tributu araubide berezia eskuratu eta galitzea.
- Beste edozein inguruabar garrantzitsu, Patronatuak hura ohartarazteko eskatuz gero.

Horrenbestez, fundazio baten bizitzari eta jarduerari buruzko datu garrantzitsuak haren eraketa inskribatu eta ondoren gertatutakoak –esate baterako, ahalduntze orokorrak, inbentarioa, kontuak, besterentzeak eta zorpetze aipagarriak, patroien ordezteak eta hartan aldi baterako esku hartzeaz dira nahitaez jaso beharrekoak, Estatuko lege-

etan gertatzen denaz bestela, Fundazioak berak eskatu ezean. Datu horietako batzuk, halere, jasota egon daitezke, ordea, Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren espedienteetan, baina erregistro-baliorik gabe eta informazio fiskal horrek daukan isiltasunaren pean.

Azken batean, araupetze eskas horrek dokumentazioa biltzeko artxibategi bihurtzen du erregistroa, erregistro publikoa den aldetik dagokion aplikazioa oztopatzen duena; beraz, halako zerbitzu publiko bati eskatu behar zaion gardentasuna falta du.

6gn. Fundazioek sozietateen gaineko zerga dela-eta dauzkaten obligazioak.

10/1996 Foru Legeko 27. artikulua ondokoa dio, berariaz: "Titulu honetan aipaturiko entitateek zergaldi honetan lorturiko errenta guztiak aipatu beharko dituzte elkarteen gaineko zergaren aitopenetan, baita kargarik ez dutenak ere, halakorik bada." Beraz, araubide fiskal bereziari atxikitako fundazioek sozietateen gaineko zergaren aitopena aurkeztu behar dute, errenta guztiak barne hartuz, salbuetsiak eta salbuetsi gabek.

Aipatu foru legeko baldintzak betetzen ez dituzten fundazioei dagokienez, zergari buruzko egungo lege fiskalek ez dituzte zehazki mugatzen haien tributu obligazioak. Bada, Sozietateen gaineko zergari buruzko 24/1996 Foru Legearen sarrerak berariaz adierazten du bere araupetetik kanpo geratzen direla "sozietate kooperatiboen zerga-ordainketa, zeinen zerga araubidea ekainaren 21eko 9/1994 Foru Legeak arautzen baitu, bai eta fundazioen eta babes jardueren zerga araubideari buruzko uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legean aurreikusitako ezaugarriak dituzten fundazioen zerga-ordainketa ere"; bestalde, karga tasei buruz ari dela –50.2 artikulua–, ehuneko 25eko tasa berezia ordainduko dutela ezartzen da ondokoetarako: "...e) Fundazioen eta babes jardueren tributu araubidea erregulatzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legean ezarritako zerga araubidea edukitzeko beharkizunak betetzen ez dituzten eta irabazteko asmorik ez duten elkarreak." Halaber, X. tituluko XII. kapituluak hein batean salbuetsita dauden entitateen araubidea ezartzen du, eta ondokoa aipatzen du, besteak beste, 152. artikuluan "a) Irabazi asmorik gabeko elkarteei, betiere legezko ordezkari karguak doakoak badira eta, hala badagokio, dagokion organoari kontuak ematen bazaizkio, aipatu entitateek Fundazioen eta babes jardueren tributu araubidea erregulatzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legean ezarritako zerga araubidea edukitzeko beharkizunak betetzen ez dituztenean." Salbuespen partzial horrek, betiere, berekin ekarriko du, besteak

beste, salbuetsi gabeko errentengatik aitorpena aurkezteko betebeharra, salbu eta haiek horri atxiki bazaizkio. Horri dagokionez, honakoak jotzen dira salbuetsitako errentatzat –153. artikulua–: “Sozietatearen xedea edo helburu zehatza osatzen duten jarduerak burutzetik datozenak eta ekonomi ustiapenetatik ateratzen direnak, betiere Fundazioen eta babes jardueren tributu araubidea erregulatzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legeko 18. artikuluko 2. zenbakiak ezarritako baldintzak betetzen badira...”

Beraz, sozietateen gaineko zergari buruzko arauak, araubide bereziko fundazioak bere aplikazio eremutik kanpo uzten dituenean, “fundazio” esaten die zehazki. Gainerako kasuetarako, aipatu arauak ez du “fundazio” hitza aipatzen, “irabazi asmorik gabeko elkarteak” baizik. Horrenbestez, hitzez hitzeko interpretazio bat eginez, arau horrek figura juridiko ezberdinak aipatzen ditu, eta horretatik ondoriozta daiteke araubide fiskal bereziari atxikirik ez dauden fundazioek ez dutela inongo araubide berezirik sozietateen gaineko zergan, eta zerga horri buruzko arau orokorretan exijitzen diren tributu-obligazio arruntak bete behar dituztela.

Beraz, gure ustez egoera hau argitu behar da, araubide fiskal bereziari bildu gabeko fundazioen obligazio fiskalak eta tributu araubideak zehaztasunez finkatzeko.

7gn. Jarraipena.

Administrazioak ez du fundazioen jarraipen berariazkorik egiten, ez arlo fiskalari dagokionez, ez eta araubide fiskal bereziari atxikitako fundazioek urtero finantza-informazioa igortzeko duten betebeharra betetzeari eta informazio horren azterketari dagokienez ere.

Aurreko iruzkinak ikusita, eta fundazioen figuraren egungo erabilera zabalari erreparatuta, komeni da, gure ustez, haiei buruzko foru arautegia osatzea, haien jarduera garatzeko marko juridiko bat ezarriz –botere publikoek egin beharreko kontrol eginkizunak eta funtzionamenduan behar den gardentasuna ezertan ere kaltetu gabe–. Hori dela eta, foru legeriaren modernizazioak fundazioek garatzen dituzten jardueren egungo errealitatea bildu behar dute –askotan, sorrerako xedeekin loturiko merkataritza jarduera–, eta, horrenbestez, foru sektore publikoko entitateek gehiengoa duteneko fundazioak arautu behar dira. Gainera, komenigarria da Fundazioen Erregistro Orokor bat sortzea, non fundazioei buruzko oinarrizko informazioa islatuko den –duten araubide fiskala dutela– eta Nafarroako Gobernuako departamentu ezberdinen jarduketak koordinatuko diren.

NAFARROAKO GOBERNUKO EKONOMIA ETA OGASUN KONTSEILARIAK AURKEZTURIKO ALEGAZIOAK.

Arrese Fundazioari Nafarroako Gobernuak emaniko dirulaguntza eta laguntzei buruz Kontuen Ganbarak egin duen zirriborroari aurkezturiko alegazioak.

Zirriborroaren edukia dela eta, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak ondoko alegazioak egin behar ditu:

Lehena. Legezkotasun printzipioa bete ote den egiaztatzeaz diharduen 2. helburuari buruzko atalean, zehazki 4. ondorioan, esaten da Arrese Fundazioak 1996ko abenduan eskatu zuela 10/1996 Foru Legean aurreikusitako araubide fiskalari atxikitzeko, baina Fundazioen Erregistroan izena emanda dagoen kreditatu gabe.

Esaten da, gainera, Fundazioak onura fiskal tarako aurkeztu duen eskaria osatu gabe zegoela, eta Administrazioak hori ohartarazi behar ziola.

Horri dagokionez, esan behar dugu Ekonomia eta Ogasun Departamentuak, Fundazioak eskaria aurkeztu zuen egunean, 1996ko abenduaren 9an, ezin izan ziola eskatu Erregistroan izena emateko baldintza betetzeko, une hartan bukatu gabe baitzegoen Fundazioen Erregistroaren egitura eta funtzionamendua erregulatzen duen azaroaren 11ko 613/1996 Foru Dekretuko xedapen iragankorrean ezarritako epea; epe hori, hain zuzen ere, 1996ko abenduaren 31n bukatzen zen Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilaren Konpilazioko 44. legearen babesean eraturiko fundazioentzat.

Bigarrena. Aipatu 2. helburuko 5. ondorioan esaten da fundazioak tributu araubide berezia aitortua duen ala ez duen kontuan hartu gabe ere, 1996tik 1999ra bitartean lorturiko etekinen autolikidazioa aurkeztu behar zuela, etekin salbuetsiena eta salbuetsi gabekoena.

Gure ustez, garrantzi handikoa da azpimarratzea, txosteneko 9. orrialdean jasotzen den bezala, Fundazioak sozietateen gaineko zergaren 1994tik 1997ra bitarteko aitorpen-autolikidazioak aurkeztu dituela.

Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legea indarrean sartzeak berekin ekarri zuen, tributu kudeaketaren arloan, aurreko arauak nabarmen aldatzea. Izan ere, aipatu foru legeko 80. artikulua, zergaren aitorpen-autolikidazioa arautzen ari dela, ezartzen du subjektu pasibo guztiek zergaren aitorpena aurkeztu eta izenpetu behar dutela, haiek ukitzen dituzten datu guztiak betez eta erregelamenduz ezarriko diren agiri eta egiaztagiria aurkeztuz.

Hala eta guztiz ere, printzipio orokor horren ondoan, 80. artikulua berak bi salbuespen aipatzen ditu:

a) 12. artikulua arabera salbuetsita dauden subjektu pasiboak dagokiena.

b) Foru legeko X. tituluko XII. kapituluaren aipaturiko subjektu pasiboak, hau da, partzialki salbuesitako entitateei dagokiena, baldin eta salbuetsi gabeko errentarik lortzen badute edo errenta horiek lortuta ere haiek atxikitze beharra egon eta lortutako bakarrak badira.

Egia izanda ere 24/1996 Foru Legeko X. tituluko XII. kapituluak, zehazki 152. artikulua, berariaz aipatzen dituela bere aplikazio eremuan 10/1996 Foru Legeari atxiki gabeko fundazioak –beraz, kasuan kasuko aitorten-autolikidazioa egiteko betebeharretik salbu uzten ditu aipatzen dituen baldintzetan–, egia da ere 152. artikulua 10/1996 Foru Legeari atxikitako fundazioen ez aipatzea dela eta, ezin dela esan haiek kanpo uzten dituela; hain zuzen ere, horren atzean dago legegilearen asmoa, entitate horiek aipatu foru legean haientzat berariaz ezarritako araubidearen mende egotearena.

Bestelako interpretazio bat egiteak, gure ustez, egoera absurdo bat sortuko luke, 10/1996 Foru Legeari atxikitako fundazioek, betekizun formalen aldetik, tratamendu okerragoa edukiko luketelako foru lege horren aplikaziotik kanpo gelditzen diren fundazioek baino.

Argi dago fundazioei buruzko arau fiskalak, 10/1996 Foru Legearen VII. kapituluaren araututa-

koak, salbuespen partzial bat ezartzen duela sozietateen gaineko zergari buruz; hori dela eta, salbuetsi gabeko errentarik jasotzekotan, behar den aitorten-autolikidazioa egin beharko da, gainerako subjektu pasiboak egin behar duten bezala.

Hori dela eta, gure ustez, Arrese Fundazioak lehen aipaturiko zergaldietan aipatu foru legearen arabera aplikatzekoak diren onura fiskaletan babestu gabeko errentarik lortu izan bazuen, zegokien aitorten-autolikidazioa aurkeztu beharko zuen; hala egin ezean, 10/1996 Foru Legeko 11. artikuluan ezarritako betekizun formalak bete beharko zituen.

NAFARROAKO KONTUEN GANBARAKO LEHENDAKARIAK NAFARROAKO EKONOMIA ETA OGASUN KONTSEILARIAREN ALEGAZIOEI EMANIKO ERANTZUNA.

Ekonomia eta Ogasun kontseilariak "Nafarroako Gobernuak Arrese Fundazioari emaniko dirulaguntzak eta beste laguntza batzuk (1996-2000)" izeneko behin-behineko txostenari egin dizkion alegazioak aztertuta, alegazio horiek txostenari erantsi dizkiogu.

Kontuen Ganbarak, berriz, berretsi egiten du behin-behineko txosteneari esandakoa, eta hortaz, behin betekotzat jo du hura.

Iruñean, 2001ko uztailaren 4an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

<p>HARPIDETZAREN PREZIOA</p> <p>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</p> <p>Urte bat..... 6.300 pta.</p> <p>Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa..... 150 ».</p> <p>Bilkura Egunkariaren aleko prezioa..... 185 ».</p>	<p>IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</p> <p>NAFARROAKO PARLAMENTUA</p> <p>«Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala»</p> <p>Arrieta 12, 3</p> <p>31002 IRUÑA</p>
---	---